

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

**LEHENENGO ARIKETA, LEHENENGO ZATIA
TEST GALDETEGIA (GAITEGI OROKORRAK)****A - EREDUA**

1. **ZERTAN OINARRITZEN DA KONSTITUZIOA?:**
 - a. Espainiako nazioaren batasunean.
 - b. Espainiako nazioa osatzen duten herri eta nazionalitate guztien batasun konpromisoan.
 - c. Espainiako nazioaren batasun zatiezinean.
 - d. Espainiako nazioa osatzen duten herrien aniztasunean.
2. **ESPAINIAKO ESTATUAREN EREDU POLITIKOA:**
 - a. Bi ganberako parlamentarismoa da.
 - b. Monarkia parlamentarioa da.
 - c. Parlamentarismo demokratikoa da.
 - d. Monarkia instituzionala da.
3. **NONDIK SORTZEN DIRA ESTATUAREN BOTEREA, ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA?:**
 - a. Erregearengandik.
 - b. Nazioko Gobernutik, zeina aukeratzeko baita sufragio unibertsal bidez.
 - c. Gorte Nagusietatik.
 - d. Espainiako herritik
4. **PRINTZPIO HAUETAKO BAT EZ DU BERMATZEN KONSTITUZIOAK. ZEIN?_**
 - a. Atzeraeragin ezaren printzipioa.
 - b. Arauen publizitatearen printzipioa.
 - c. Erregelamenduen arteko hierarkiaren printzipioa.
 - d. Legezatasun printzipioa.
5. **NOLA DU IZENA LEGEZ KONTRA ATXILOTUTAKO PERTSONA ORO LEHENBAILEHEN AGINTARITZA JUDIZIALAREN ESKU JARTZEKO PROZEDURAK, ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN AIPATZEN DENAK?:**
 - a. Iustitia humanum est.
 - b. Aurreneurritzko atxilotze.
 - c. Extra corpus carceris.
 - d. Habeas Corpus.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

6. **“ADMINISTRAZIO-HERRIKIDETASUNA” KONTZEPTUAK, EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 7. ARTIKULUAN JASOAK, HAU ESAN NAHI DU:**
 - a. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen foru legediaren mende egotea.
 - b. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legedi zibilaren mende egotea.
 - c. Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritakoa izatea.
 - d. Estatuko Lege Orokorren mendea egotea
7. **ADIERAZI HAUETAKO ZEIN DEN BAIEZTAPEN ZUZENA EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 9. ARTIKULUAREN ARABERA:**
 - a. Euskal Herriko herritarren oinarritzko eskubideak eta betebeharrak Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan finkatutakoak dira.
 - b. Euskal Herriko herritarren oinarritzko eskubideak eta betebeharrak Konstituzioan finkatutakoak dira.
 - c. Euskal Herriko herritarren oinarritzko eskubideak eta betebeharrak Ekonomia Itunean finkatutakoak dira.
 - d. Euskal Herriko herritarren oinarritzko eskubideak eta betebeharrak Lurralde Historikoen Legean finkatutakoak dira.
8. **EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAK EZ DITU LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMEN ESKLUSIBOTZAT EZARTZEN:**
 - a. Udaletako hauteskunde araubidea.
 - b. Foru aldundietako hauteskunde araubidea.
 - c. Probintzia eta udaletako ondasunen araubidea.
 - d. Probintzia mugak gainditzen ez dituzten udalerriaz gaindiko lurralde mugaketak.
9. **EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOAK ESKUMEN ESKLUSIBOA DU GAI HAUETAN:**
 - a. Ingurumena eta ekologia.
 - b. Nahitaezko desjabetzea, administrazio kontratu eta emakidak bere eskumenen barruan, eta Euskal Herriko administrazioaren erantzukizun sistema.
 - c. Euskal Herriko arrantza sektorearen antolamendua.
 - d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.
10. **EZ DA UDALERRIAREN OSAGAI BAT:**
 - a. Lurraldea.
 - b. Biztanleria.
 - c. Udala.
 - d. Antolaketa.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

11. **NORK OSATZEN DUTE UDALERRI BATEKO BIZTANLERIA?:**
- a. Udal erroldan inskribatuta dauden eta ez dauden pertsonak.
 - b. Udal erroldan inskribatuta dauden pertsonak.
 - c. Helbideratuek, behin-behineko egoiliarrek eta atzeritarrek.
 - d. Udal erroldan inskribatuta dauden adinez nagusiek.
12. **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 5.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGOKO UDALERRI GUZTIETAN DAGO, ETA BIZTANLE GUTXIAGOKOETAN:**
- a. Konstituzioak hala xedatzen badu.
 - b. Autonomia Estatutuak hala xedatzen badu.
 - c. Bertako Erregelamendu Organikoan hala xedatuta badago edo Udalbatzak hala erabakitzen badu.
 - d. Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeak hala xedatzen badu.
13. **KONTZEJU IREKIKO ARAUBIDE BEREZIA DUTE:**
- a. Gobernatzeko eta administratzeko araubide berezi horretaz betidanik eta hala nahita baliatu diren udalerriak.
 - b. 200 biztanle baino gutxiagoko udalerriak.
 - c. 300 biztanle baino gutxiagoko udalerriak.
 - d. 500 biztanle baino gutxiagoko udalerriak.
14. **BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN XEDEA DA:**
- a. Bilboko Udaleko Udalbatzaren, bertako batzordeen eta Tokiko Gobernu Batzordearen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea.
 - b. Bilboko Udaleko Udalbatzaren eta bertako batzordeen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, baita udaleko zinegotzien estatutua ezartzea ere.
 - c. Bilboko Udaleko Udalbatzaren eta bertako batzordeen antolaketa eta funtzionamendua ezartzea, baita Udalbatza osatzen duten talde politikoaren estatutua ezartzea ere.
 - d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.
15. **BILBOKO UDALEKO ARAUDI ORGANIKOAK IZAERA ORGANIKOA DU, ETA HONEN BABESPEAN EZARTZEN DA:**
- a. Konstituzioan, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuan eta Lurralde Historikoen Legean ezarritakoaren babespean.
 - b. Konstituzioan, Autonomia Estatutuan, tokiko araubidearen oinarritzko legerian eta Lurralde Historikoen Legean ezarritakoaren babespean.
 - c. Tokiko araubidearen oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean ezarritakoaren babespean.
 - d. Erantzun guztiak zuzenak dira
16. **BILBOKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BOZERAMAILEEN BATZORDEA DA:**
- a. Udalbatzako eztabaida-organoa.
 - b. Udalbatzako eta Tokiko Gobernu Batzordeko kontsulta-organoa.
 - c. Udalbatzako presidentearen organo aholku-emailea.
 - d. Udalbatzako kudeaketa-organoa

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

17. **BILBOKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BOZKETAK IZAN DAITEZKE:**
- a. Arruntak, ezohikoak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
 - b. Arruntak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
 - c. Arruntak, izenezkoak, deialdi bidezkoak eta sekretuak.
 - d. Arruntak, izenezkoak eta sekretuak.
18. **BILBOKO HIRIKO BARRUTIETAKO ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIAK IZAERA ORGANIKOA DU, ETA ONESTEN DA:**
- a. Tokiko Gobernu Batzordearen bidez.
 - b. Udalbatzaren gehiengo soilaren bidez.
 - c. Udalbatzaren gehiengo osoaren bidez.
 - d. Barruti Kontseiluen gehiengo osoaren bidez
19. **BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ZUZENDARITZA ORGANOEN HARTUKO DITUZTEN ERABAKI ADMINISTRATIBOAK:**
- a. Organo zehatzaren akordioak izango dira.
 - b. Organo zehatzaren ebazpenak izango dira.
 - c. Organo zehatzaren dekretuak izango dira.
 - d. Organo zehatzaren aginduak izango dira.
20. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DIRA LANEAN EDO LANA DELA-BIDE IZANDAKO GAIXOTASUN, PATOLOGIA EDO LESIOAK:**
- a. Langileen prebisioa.
 - b. Lan-arrisku larri eta hur-hurrekoa.
 - c. Lanetik eratorritako kalteak.
 - d. Langileen babesak.
21. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, AUKERA HAUETAKO ZEIN SARTZEN DA SEKTORE PUBLIKOAN?:**
- a. Estatuaren Administrazio Orokorra.
 - b. Autonomia erkidegoen administrazioak.
 - c. Toki administrazioa osatzen duten entitateak.
 - d. Aurreko guztiek eta besteren batek osatzen dute Sektore Publikoa, aipatutako Legearen arabera.
22. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, PUBLIKO EGIN EZ DEN PROZEDURA BATEN INSTRUKZIOAN IKUSTEN BADA BADIRELA BESTE PERTSONA BATZUK ESKUBIDE EDO INTERES LEGITIMO ETA ZUZENETAKOEN TITULAR DIRENAK, ESPEDIENTEAN IDENTIFIKATUAK ETA PROZEDURAREN EBAZPENAK UKI DITZAKEENAK:**
- a. Prozedura izapidetzen jarraituko da.
 - b. Prozedura izapidetzen ari dela komunikatuko zaie pertsona horiei.
 - c. Legezko modu batean jakinaraziko zaie prozedurako interesdun guztiei.
 - d. a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

23. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, PROZEDURAREN ANTOLAMENDUARI DAGOKIOEZ, ARAU BATEN ONDORIOZ ESPEDIENTE ELEKTRONIKO BAT BIDALI BEHARRA DAGOENEAN:**
- a. Hura izapidetu duen langile publikoaren ezaugarrien eta bitarteko erabilgarrien arabera bidaliko da.
 - b. Ez da beharrezkoa izango aurkibide batekin batera bidaltzea.
 - c. Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalean eta Elkarreragingarritasunari buruzko Arau Teknikoetan aurreikusitakoaren arabera bidaliko da, osorik, orrialdekaturik, autentifikaturik eta dituen dokumentu guztien aurkibide orobat autentifikatu batez lagundurik.
 - d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.
24. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ARAU OROKOR GISA, ADIERAZI TOKIKO ERAKUNDEEK ZEIN HIZKUNTZATAN IZAPIDETUKO DITUZTEN ADMINISTRAZIO PROZEDURAK:**
- a. Gaztelaniaz.
 - b. Gaztelaniaz eta gainerako hizkuntza koofizialetan.
 - c. Kasu honetan, dagokion legedi autonomikoan aurreikusitakora doituko da hizkuntzaren erabilera.
 - d. Kasu honetan, hizkuntzaren erabilera tokiko erakundeak aukeratuko du.
25. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ZEIN PROZEDURATAN DUTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK EBAZTEKO BETEBEHARRA?:**
- a. Salaketagatik ofizioz hasten diren prozedura guztietan bereziki.
 - b. Oro har, ofizioz hasten diren prozedura guztietan.
 - c. Prozedura guztietan, horien hasteko modua edozein dela ere.
 - d. Prozedura guztietan, horien amaitzeko modua edozein dela ere.
26. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 33. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN ERREKURTSO AURKEZTU AHAL IZANGO DA PROZEDURA PRESAZ IZAPIDETZEKO DELA DEKLARATZEN DUEN ERABAKIAREN KONTRA?:**
- a. Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Akordioa agindutako organoaren aurrean.
 - b. Gora jotzeko errekurtsoa, hierarkian goragoko mailako organo agindu-emailearen aurrean.
 - c. Ezin da errekurtsorik aurkeztu, prozedura amaitzen duen ebazpenaren aurka jar daitekeenari kalterik egin gabe.
 - d. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.
27. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO-ISILTASUNAREN BIDEZ GERTATUTAKO ADMINISTRAZIO-EGINTZAK BALIARAZI AHALKO DIRA:**
- a. Espedientearen administrazio instrukzio-egilearen aurrean soilik.
 - b. Administrazioaren aurrean, nola edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribaturen aurrean.
 - c. Soilik pertsona fisikoen aurrean.
 - d. Soilik pertsona fisiko edo juridiko publikoen aurrean.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

28. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 161. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEN HONAKO ESKUBIDE INDIBIDUAL HAUEK DITUZTE:

- a. Karrerako funtzionario-izaeraren mugiezintasunerako eskubidea.
- b. Beren maila profesionalari dagozkion funtzio eta zereginak benetan eta eraginkortasunez betetzeko eskubidea.
- c. Karrera bertikalean eta barne-sustapenean aurrera egiteko eskubidea lege honetan ezarritakoaren arabera.
- d. Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

29. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 164. ARTIKULUAREN ARABERA, FUNTZIONARIOEN HONAKO HAUXE IZATEKO ESKUBIDEA EDUKIKO DUTE:

- a. Urte natural bakoitzean, ordaindutako hogeita bi egun balioduneko oporraldia edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien opor egunak.
- b. Urte natural bakoitzean, ordaindutako hogeita hamar egun naturaleko oporraldia edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien opor-egunak.
- c. Urte natural bakoitzean, ordaindu gabeko hogeita bi egun balioduneko oporraldia edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien opor-egunak.
- d. Urte natural bakoitzean, ordaindu gabeko hogeita hamar egun naturaleko oporraldia edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien opor-egunak.

30. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 165. ARTIKULUAREN ARABERA, LANALDIA(K):

- a. Enplegatu publikoen dagokion entitatearen esanetara lanean eta beren jarduera eta eginkizunak betetzen eman behar duten denbora da.
- b. Enplegatu publikoaren lana egiteko modua finkatuko du.
- c. Euskal administrazio publikoen aplikatu ahal izango dute, aldez aurretik horretarako negoziazio kolektiborik egin gabe.
- d. Aurreko guztiak okerrak dira.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

31. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 166. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEN JARDUKETA PROFESIONALAK HONAKO HAUXE BEGIRATUKO DU:

- a. Osotasun- eta gardentasun-printzipioak, eta guztiz beteko ditu banakako jokabidearen printzipioak, kalitate instituzionalarenak eta herritarrekiko harremanetarakoak, zeinak jasotzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 6, 7 eta 8. artikuluetan.
- b. Inpartzialtasun eta fede onaren printzipioak, eta guztiz beteko ditu taldeko jokabidearen printzipioak, kalitate instituzionalarenak eta herritarrekiko harremanetarakoak, zeinak jasotzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 6, 7 eta 8. artikuluetan.
- c. Osotasun- eta gardentasun-printzipioak, eta guztiz beteko ditu banakako eta taldeko jokabidearen printzipioak, kalitate instituzionalarenak eta herritarrekiko harremanetarakoak, zeinak jasotzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 6, 7 eta 8. artikuluetan.
- d. Inpartzialtasun eta fede onaren printzipioak, eta guztiz beteko ditu banakako jokabidearen printzipioak, kalitate instituzionalarenak eta herritarrekiko harremanetarakoak, zeinak jasotzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 6, 7 eta 8. artikuluetan.

32. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 122. ARTIKULUAREN ARABERA, ORDAINSARI OSAGARRIAK DIRA:

- a. Betetzen den lanpostuari dagokion destino-osagarria, urtero finkatuko baitzaio zenbatekoa Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan.
- b. Berariazko osagarriak, esleitua duen lanpostu bakoitzerako bakarra izango denak, lanpostu bakoitzaren berariazko baldintzak ordainduko ditu, aintzat hartuta zailtasun tekniko berezia, dedikazioa, erantzukizuna, arriskua edo nekagarritasuna.
- c. Produktibitate-osagarria, enplegatu publikoek lanpostuan izandako errendimendu berezia, ohiz kanpoko jarduera eta interesa edo ekimena ordaintzekoa.
- d. Aurreko guztiak zuzenak dira

33. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 169. ARTIKULUAREN ARABERA:

- a. Dagokion legerian ezarritakoarekin bat etorritik eskatuko da erantzukizun penala, bai eta delituaren ondoriozko erantzukizun zibila ere.
- b. Dagokion legerian ezarritakoarekin bat etorritik eskatuko da delitutik eratorritako erantzukizun zibila.
- c. Enplegatu publikoen diziplina-erantzukizuna lege honen XII. tituluan xedatutakoaren arabera gauzatuko da.
- d. Aurreko guztiak zuzenak dira.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

34. **2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAREN IRISPIDE-ESKUBIDEAREN BARRUAN...**
- a. ... Informazioa erabilera orokorreko formatu elektroniko batean emango zaio interesdunari, beti.
 - b. ... Informazioa erabilera orokorreko formatu elektroniko batean emango zaio interesdunari, noiz eta interesdunak ez duen eskatzen beste moduren batean bidaltzeko.
 - c. ... Interesdunak eskabidea bitarteko elektronikoen bidez aurkezten duenean, informazioa erabilera orokorreko formatu elektroniko baten bidez bidaliko da, noiz eta interesdunak ez duen eskatzen beste moduren batean bidaltzeko.
 - d. ... Erantzun guztiak okerrak dira.
35. **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKAL HERRIKO HERRITARREI HONAKO FUNTSEZKO HIZKUNTZA-ESKUBIDE HAUEK AITORTZEN ZAIZKIE:**
- a. Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.
 - b. Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
 - c. Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.
 - d. Erantzun guztiak zuzenak dira.
36. **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIOAREN JAKINARAZPENEK ETA ADIERAZPENEK:**
- a. Euskaraz egon beharko dute nahitaez eta gaztelaniaz hautaz.
 - b. Gaztelaniaz egon beharko dute nahitaez eta euskaraz hautaz.
 - c. Bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute.
 - d. Erantzun guztiak okerrak dira.
37. **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN 15. ARTIKULUAREN ARABERA, IKASLE GUZTIEI AITORTZEN ZAIE...**
- a. ... irakaskuntza euskaraz nahitaez jasotzeko eskubidea irakasmaila guztietan.
 - b.irakaskuntza gaztelaniaz nahitaez jasotzeko eskubidea irakasmaila guztietan.
 - c.irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmaila guztietan.
 - d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena
38. **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOAREN MENPEKO ERREGISTRO PUBLIKOETAN DOKUMENTUAK LERROKATZEA EGINGO DA:**
- a. Gaztelaniaz, euskarazko itzulpenarekin.
 - b. Euskaraz, gaztelaniazko itzulpenarekin.
 - c. Dokumentuok idatzita dauden hizkuntza ofizialean.
 - d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

39. **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, BI HIZKUNTZETAN IDATZITA EGON BEHARKO DU:**
- a. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteei emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok.
 - b. Bide publikoko trafikoko seinale eta ikur orok.
 - c. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko herri-agintariak erabiltzeko eredu ofizial orok.
 - d. Erantzun guztiak zuzenak dira.
40. **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, JAURLARITZAK IKASTETXE BAKOITZEAN IRAKATSI BEHARREKO HIZKUNTZA-EREDUAK FINKATUKO DITU KONTUTAN IZANIK:**
- a. Guraso-kuradoreen nahia eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa.
 - b. Guraso-kuradoreen nahia eta familien egoera sozioekonomikoa.
 - c. Guraso-kuradoreen nahia eta familien egoera soziosanitarioa.
 - d. Zuzenak dira b) eta c) erantzunak.
41. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN XEDEA DA:**
- a. Langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea, lanaren ondoriozko arriskuak prebenitzeko behar diren neurriak aplikatuz eta jarduerak gauzatuz.
 - b. Laneko istripuen estatistikak sustatu eta garatzea.
 - c. Langileen segurtasuna garatzea, neurri zuzentzaileak eta zehatzaileak ezarriz.
 - d. Printzipio orokorrak ezartzea, enpresariak arriskudun lanak kendu ditzaten.
42. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, SEGURTASUN ETA OSASUNEN BATZORDEA OSATUKO DUTE, BATETIK, PREBENTZIORAKO ORDEZKARIEK ETA, BESTETIK, ENPRESABURUAK EDOTA BERAREN ORDEZKARIEK, KOPURU HONETAN:**
- a. Prebentziorako ordezkarien kopuru berean.
 - b. Prebentziorako ordezkarien kopurua gehi bat.
 - c. Prebentziorako ordezkarien kopurua gehi bi.
 - d. Erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.
43. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZEIN DA LANETIK ERATORRITAKO ARRISKUAK SAIHESTEKO EDO HORIEK MURRIZTEKO ENPRESAKO JARDUERA-FASE GUZTIAN EZARRITAKO JARDUEREN ETA HARTUTAKO NEURRIEN MULTZOA:**
- a. Langileen prebisioa.
 - b. Prebentzioa.
 - c. Langileen babesak.
 - d. Lan-ekipamendua.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

44. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DIRA PREBENTZIO-NEURRI BEREZIRIK IZAN EZEAN ARRISKUAK ERAGITEN DITUZTEN PROZESU, JARDUERA, ERAGIKETA, EKIPAMENDU EDO PRODUKTUAK, HALAKOAK GAUZATZEN EDO ERABILTZEN DITUZTEN LANGILEEN SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO:**
- a. Laneko prebentzioak.
 - b. Prebentziorako berariazko babesak.
 - c. Arriskutsuak izan daitezkeenak.
 - d. Lanetik eratorritako kalteak.
45. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DA LANGILEAK ALDEAN ERAMATEKO EDO ERABILTZEKO EDOZEIN EKIPAMENDU LANEKO ARRISKUTIK EDO ARRISKUETATIK BABESTEKO:**
- a. Babesteko arriskuen azterketa.
 - b. Laneko arropa.
 - c. Lan-arriskua.
 - d. Banakako babes-ekipamendua.
46. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, PREBENTZIO ARLOKO POLITIKAK HONAKOEN PARTE HARTZEAREKIN EGINGO DIRA:**
- a. Enpresaburuak.
 - b. Langileak.
 - c. Autonomia erkidegoko enpresa-erakundeak eta sindikatuak.
 - d. Enpresaburuak eta langileak.
47. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN XEDATUTAKOAREN ARABERA, SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO BATZORDEA ERATUKO DA HONAKO ENPRESA EDO LANTOKI GUZTIETAN:**
- a. 200 langile edo gehiago dituztenetan.
 - b. 150 langile edo gehiago dituztenetan.
 - c. 100 langile edo gehiago dituztenetan.
 - d. 50 langile edo gehiago dituztenetan.
48. **2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA APLIKATZEN ZAIO:**
- a. Datu pertsonalen tratamendu guztiz automatizatuari.
 - b. Datu pertsonalen tratamendu, neurri batean, automatizatuari.
 - c. Fitxategi batean dauden datu pertsonalen tratamendu ez automatizatuari.
 - d. Erantzun guztiak zuzenak dira.
49. **2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA EZ ZAIO APLIKATZEN:**
- a. Pertsona fisiko batek egin duen datu pertsonalen tratamenduari, baldin eta etxekoa edo pertsonala baino ez den jarduera batean egiten badu.
 - b. Batasunerako zuzenbidearen esparruaren barruko jarduerak egitearen ondoriozko datu pertsonalen tratamenduari.
 - c. Fitxategi batean sartzekoak diren datu pertsonalen tratamendu ez automatizatuari.
 - d. Pertsona fisiko batek egin duen datu pertsonalen tratamenduari, jarduera profesional batean egin badu.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

50. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA:

- a. Interesdunak eskubidea izango du bere adostasuna edozein unetan kentzeko, adostasuna eman eta hurrengo egunetik aurrera.
- b. Adostasuna kentzeak ez du eraginik izango kendu aurretik emandako adostasunean oinarritutako tratamenduaren legitimitatean, non eta adostasun hori osasunari edo ideologiari lotutako datuei buruzkoa ez bada.
- c. Tratamendua interesdunaren adostasunean oinarritzen denean, arduradunak gai izan behar du frogatzeko interesdunak oniritzia eman ziola bere datu pertsonalak tratatzeari.
- d. Adostasuna kentzea ematea bezain erraza izango da, fitxategiaren arduradunak eta interesdunak estatu kide desberdinetan daudenean helbideratuta izan ezik.

51. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAK ESKUBIDEA IZANGO DU BERARI BURUZKO DATU PERTSONALAK ATZERAPEN BIDEGABERIK GABE EZEREZTU DITZAN TRATAMENDUARDURADUNAK, ZEINA EZ BAITA BEHARTUTA EGONGO DATU PERTSONALAK ATZERAPEN BIDEGABERIK GABE EZEREZTERA, BALDINTZA HAUETAKO BAT GERTATZEN DENEAN:

- a. Datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan.
- b. Interesdunak bertan behera uzten badu tratamenduaren oinarrian dagoen adostasuna, baina tratamenduak beste oinarri juridiko bat badu.
- c. Datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin bada.
- d. Datu pertsonalak ezereztu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean ezarritako lege-betebehar baten indarrez.

52. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAK ESKUBIDEA IZANGO DU TRATAMENDU-ARDURADUN BATI HELARAZI DIZKION DATU PERTSONALAK ERABILERA OROKORRA ETA IRAKURKETA MEKANIKOA DUEN FORMATU EGITURATU BATEAN JASOTZEKO, BAI ETA BESTE TRATAMENDU-ARDURADUN BATI BIDALTZEKO ERE, DATUAK JASO DITUEN ARDURADUNAK OZTOPORIK JARRI GABE, BALDIN ETA BALDINTZA HAUEK BETETZEN BADIRA:

- a. Tratamendua adostasunean edo kontratu batean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko automatizatu bidez egiten bada.
- b. Tratamendua soilik adostasunean oinarrituta badago, eta tratamendua automatizatu gabeko bitartekoen bidez egiten bada.
- c. Tratamendua adostasunean, kontratu batean edo betebehar pertsonal batean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko informatikoen bidez egiten bada.
- d. Tratamendua adostasunean edo kontratu batean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko automatizatu eta automatizatu gabeen bidez egiten bada.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

53. **ZEINTZUK EZ DAUDE DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ZIGOR ARAUBIDEAREN MENDE?:**
- a. Tratamenduaren arduradunak.
 - b. Datuen babeserako ordezkariak.
 - c. Ziurtatze erakundeak.
 - d. Tratamenduaren eragileak.
54. **ZENBAT DENBORAKOA DA DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOARI EGINDAKO ARAU-HAUSTE OSO LARRIEN PRESKRIPZIO-EPEA:**
- a. 2 urtekoa.
 - b. 3 urtekoa.
 - c. 4 urtekoa.
 - d. 5 urtekoa.
55. **DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, NORK DU ESKUBIDEA BERARI BURUZKO DATUAK EZABA DITZATEN, ESKATZE HUTSAREKIN?**
- a. Sare sozialen zerbitzuetan argitaratzeko, berari buruzko datuak eman dituen pertsona orok.
 - b. Sare sozialen zerbitzuetan argitaratzeko, hirugarrenek berari buruzko datuak eman dituztenean.
 - c. Sare sozialen zerbitzuari datuak eman dizkioten eragindakoek, baina soilik adingabe direla eman badituzte.
 - d. a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
56. **ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAREN BETEARAZPENA EPE HONETAN GAUZATU BEHARKO DA:**
- a. 2 urte gehienez.
 - b. Urtebete gehienez.
 - c. 3 urte gehienez.
 - d. 30 hilabete gehienez.
57. **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, EZ DIRA SEXUAN OINARRITUTAKO DISKRIMINAZIOTZAT JOKO:**
- a. Justifikazio objektiborik eta zentzuzkorik ez duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu ezberdina ematea badakarte ere.
 - b. Justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu berdinzalea ematea badakarte ere.
 - c. Justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu ezberdina ematea badakarte ere.
 - d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

58. **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 4. ARTIKULUAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OSORAKO ERAKUNDEEI DAGOKIE:**
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bai legegintzako eskumena, bai arauak garatzeko eskumena, bai eta betearazteko eskumena ere.
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bai eskumen eskusiboa, bai arauak garatzeko eskumena, bai eta betearazteko eskumena ere.
 - Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, bai legegintzako eskumena, bai arauak garatzeko eskumena, bai eta zuzeneko ekintza ere.
 - Eskumena lurralde historikoa da.
59. **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, HONAKO HAUXE DA AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK ETA FORU- ETA TOKI-ADMINISTRAZIOEK EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN GARATZEN DITUZTEN POLITIKAK ETA PROGRAMAK KOORDINATUKO DITUEN ORGANOAK:**
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Lantaldea.
 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batza.
 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.
60. **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 16. ARTIKULUAREN ARABERA, UDALETAKO BERDINTASUNERAKO PLANEK EZ DUTE HONAKO HAUXE IZAN BEHAR:**
- Egoeraren diagnostikoa.
 - Zehapen-araubidea.
 - Aurrekontua.
 - Egutegia.
61. **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN 74. ARTIKULUAREN ARABERA, EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAK URTEKO TXOSTEN BAT IDATZI ETA HEMEN AURKEZTUKO DU:**
- Arartekoa.
 - Eusko Legebiltzarra.
 - Eusko Jaurlaritza.
 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

62. BILBOKO UDALAK EGINDAKO ANDRAZKOEN ETA GIZONEZKOEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO V. PLANAK DIO EZEN INDARKERIAK JASATEN DITUZTEN EDO JASAN DITUZTEN EMAKUMEEN ESKUBIDEA DELA ARRETA ETA BABESA JASOTZEA, GERTATUTAKOA IKERTZEA, EDOA HAIEN SUSPERTZEA ETA KALTEAREN ERREPARAZIOA:

- a. Eta, horretarako, erakundeekin, gizarte zibilarekin, gizarte-erakundeekin eta, bereziki, emakumeen eta feministen elkarte-mugimenduarekin koordinatzeko eta haiekin guztiekin lankidetzan aritzeko tresnak garatu beharko dira.
- b. Eta, horretarako, erakundeekin, gizarte- eta ekonomia-erakundeekin eta, bereziki, emakumeen eta feministen elkarte-mugimenduarekin koordinatzeko eta haiekin guztiekin lankidetzan aritzeko tresnak garatu beharko dira.
- c. Eta, horretarako, erakundeekin, erakunde zibilekin eta, bereziki, emakumeen auzo-elkarteekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko tresnak garatu beharko dira.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

63. 9/2017 LEGEAREN ARABERA (AZAROAREN 8KOA, SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKOA), KONTRATU TXIKIEN IRAUPENA EZIN DA IZAN EPE HAU BAINO HANDIAGOA:

- a. Sei hilabete, luzatzeko aukerarekin.
- b. Urtebete, luzatzeko aukerarekin.
- c. Sei hilabete, luzatzeko aukerarik gabe.
- d. Urtebete, luzatzeko aukerarik gabe.

64. MARKATU ERANTZUN ZUZENA:

- a. Kontratu bat zatikatu daiteke haren zenbatekoa murrizteko.
- b. Kontratu bat zatikatu daiteke publizitate-betebeharrak saihesteko.
- c. Kontratu bat ez da zatikatu ahal izango esleipen prozedurari dagozkion betebeharrak saihesteko.
- d. Sektore publikoko kontratuak beti zatikatu behar dira zenbateko edo balio ekonomiko jakin batera iristen baldin badira.

65. MARKATU ERANTZUN OKERRA:

- a. Ezin dute zerbitzu publikoarekin kontraturik egin aldi baterako osatutako enpresari-elkarteek.
- b. Klausula administratibo partikularren pleguak exigitu diezaieke obrakontratuen esleipendun gertatzen diren iparramerikar enpresei Espainian sukurtsal bat irekitzea, eta Merkataritza Erregistroan izena emanda egotea.
- c. Sektore publikoarekin kontratuak egiteko, enpresariak egiaztatu beharko dute kaudimen ekonomiko eta finantzarioko gutxieneko baldintzak eta baldintza profesionalak betetzen dituztela.
- d. Pertsona juridiko diren enpresarien jarduteko gaitasuna eskritura edo eratze dokumentu bidez egiaztatuko da.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

66. MARKATU ERANTZUN ZUZENA:

- a. Kontratu txikitzat joko dira 15.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, hornidura-kontratuen kasuan.
- b. Kontratu txikitzat joko dira 50.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, zerbitzu-kontratuen kasuan.
- c. Kontratu txikitzat joko dira 40.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, hornidura-kontratuen kasuan.
- d. Kontratu txikitzat joko dira 60.000 euro baino gutxiagoko balio estimatua dutenak, zerbitzu-kontratuen kasuan.

67. XEDETZAT TELEKOMUNIKAZIO SISTEMA ETA EKIPOEN ALOKAIRUA DUTEN KONTRATUAK JOKO DIRA:

- a. Obra-kontratutzat.
- b. Hornidura-kontratutzat.
- c. Zerbitzu-kontratutzat.
- d. Aurreko aukeretako bat ere ez da zuzena.

68. HORNIDURAKO ETA SEGIDAKO ZERBITZUETAKO KONTRATUEK:

- a. Gehienez, bost urteko iraupen epea izango dute.
- b. Gehienez, hamar urteko iraupen epea izango dute.
- c. Gehienez, sei urteko iraupen epea izango dute.
- d. Gehienez, hiru urteko iraupen epea izango dute.

69. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 161. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEK HONAKO ESKUBIDE INDIBIDUAL HAUEK DITUZTE:

- a. Etengabeko prestakuntza izateko eta ezagutza nahiz gaitasun profesionala etenik gabe eguneratzen jarraitzeko eskubidea, lehentasunez, lan-ordutegiaren barruan.
- b. Karrera profesionalean eta barne-sustapenean aurrera egiteko eskubidea.
- c. Enplegatu publikoen datu pertsonalen babeserako eta pribatutasunerako eskubidea.
- d. Aurreko guztiak zuzenak dira.

70. KONTRATUEN FORMALIZAZIOA DAGOKION KONTRATUAREKIN ARGITARATU BEHARKO DA:

- a. Kontratua burutu ondoren, hamabost egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean.
- b. Kontratua burutu ondoren, hiru egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean.
- c. Kontratua burutu ondoren, bost egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean.
- d. Kontratua burutu ondoren, zortzi egun baino gehiagokoa ez den epean, kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean.

71. BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRI BATEAN, ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA HONEK ONETSI BEHAR DU:

- a. Udalbatzak.
- b. Langile Batzordeak.
- c. Alkateak.
- d. Tokiko Gobernu Batzarrak.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

72. HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA EGIA?:

- a. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
- b. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, diziplina, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
- c. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat, bere langileen ausazko birbanaketaren bidez.
- d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

73. GIZA BALIABIDEEN BEHARRIZANAK DAUDENEAN, ETA, HORRETARAKO, AURREKONTUKO DIRU-IZENDAPENA EGONDA, LANGILE BERRIAK SARTZEA BEHARREZKOA DENEAN HAU EGIN BEHAR DA:

- a. Enplegu Publikorako Eskaintza edo langile-beharrizanak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren bat erabili.
- b. Enplegu Publikorako Eskaintza.
- c. Lanpostuen zerrenda.
- d. Iragarkia EBEO Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean.

74. ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZAREN ONESPENAK KONPROMETITUTAKO LANPOSTUEI DAGOZKIEN AUKERAKETA PROZESUETARAKO DEIALDIAK EGITEKO BETEBEHARRA EKARRIKO DU...

- a. ... eta are % 5eko gehigarri bat ere.
- b. ... eta are % 10eko gehigarri bat ere.
- c. ... eta are % 3ko gehigarri bat ere.
- d. ... eta are % 7ko gehigarri bat ere.

75. EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 52. ARTIKULUAREN ARABERA, ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA EDO ANTZEKO TRESNA ONARTZEAK, HONAKO BETEBEHAR HAU DAKAR:

- a. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian soilik.
- b. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, edo dagokion Lurralde Historikokoan Foru Diputazioei edo Toki-korporazioei erreferentzia egiten badie, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.
- c. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren kasuan, edo dagokion Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean, foru- eta toki-administrazioen kasuan. Halaber, dagokion administrazioaren iragarki-taulan argitaratuko da.
- d. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoaren kasuan, eta dagokion Lurralde Historikoaren aldizkari ofizialean, foru- eta toki-administrazioen kasuan. Halaber, administrazio bakoitzaren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

76. TOKI ADMINISTRAZIOKO PERTSONAL FUNTZIONARIOA HONAKO HAUEN BIDEZ ARAUTZEN DA:

- a. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatu gabekoetan, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legea, funtzio publikoari buruzko Estatuko gainerako legeria, bai eta Autonomia Erkidegoen legeria ere, Konstituzioaren 149.1.18.a artikulua baldintzetan.
- b. Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legean xedatu gabekoetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, funtzio publikoari buruzko Estatuko gainerako legeria, bai eta Autonomia Erkidegoen legeria ere, Konstituzioaren 149.1.18.a artikulua baldintzetan.
- c. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatu gabekoetan, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legea, funtzio publikoari buruzko Estatuko gainerako legeria, bai eta Autonomia Erkidegoen legeria ere, Konstituzioaren 149.1.1.a artikulua baldintzetan.
- d. Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legean xedatu gabekoetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, funtzio publikoari buruzko Estatuko gainerako legeria, bai eta Autonomia Erkidegoen legeria ere, Konstituzioaren 149.1.1.a artikulua baldintzetan.

77. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN ARABERA, PLANTILLAK:

- a. Arrazionaltasun, ekonomia eta efizientzia printzipioen arabera izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek izaera orokorrean ezarritako mugak gainditu ditzakete.
- b. Arrazionaltasun, ekonomia eta fede onaren printzipioen arabera izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrean ezarritako mugak gainditu.
- c. Arrazionaltasun, ekonomia eta fede onaren printzipioen arabera izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek izaera orokorrean ezarritako mugak gainditu ditzakete.
- d. Arrazionaltasun, ekonomia eta efizientzia printzipioen arabera izan behar dira, eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezarri beharko dira. Langileen gastuek ezin izango dituzte izaera orokorrean ezarritako mugak gainditu.

78. TOKI ADMINISTRAZIOAN, AHALMEN PUBLIKOAK BETETZEN EDO INTERES OROKORREN ZAINTZAN PARTE-HARTZE ZUZENA EDO ZEHARKAKOA ESKATZEN DUTEN FUNTZIOAK BETETZEA SOILIK HONAKO HAUEI ERRESERBATUTA DAGO:

- a. Behin-behineko langileei.
- b. Karrerako funtzionarioei.
- c. Lan-kontratuko langileei.
- d. Kargu publikoei.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

79. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN ARABERA, TOKI FUNTZIONARIOEN OINARRIZKO ORDAINSARIEK:

- a. Funtzio publiko osoarentzat orokorrean ezarritako egitura bera eta zenbateko bera izango dituzte.
- b. Funtzio publiko osoarentzat orokorrean ezarritako egitura bera izango dute, baina zenbateko bera izan beharrik gabe.
- c. Funtzio publiko osoarentzat orokorrean ezarritako zenbateko bera izango dute, baina egitura bera izan beharrik gabe.
- d. Tokiko korporazio bakoitzak libreki ezarritako egitura eta zenbatekoa izango dute.

80. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ENPRESABURUAK:

- a. Langileak laneko arriskuetatik prebenitzeko eskubidea du.
- b. Langileak laneko arriskuetatik babesteko eskubidea du.
- c. Langileak laneko arriskuetatik babesteko betebeharra du.
- d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

ERRESERBAKO GALDERAK**81. KONSTITUZIOAK HONAKO HAUEK ALDARRIKATZEN DITU ANTOLAMENDU JURIDIKOAREN BALIO NAGUSITZAT:**

- a. Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
- b. Askatasuna, justizia eta lehia askea.
- c. Askatasuna, berdintasuna eta aniztasun politiko eta sindikala.
- d. Askatasuna, berdintasuna eta senidetasuna.

82. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, LEGE BIDEZ GARATU ETA BETEARAZTEKO ESKUMENEN KASUAN:

- a. Estatuari dagokio oinarritzko arauak ezartzea eta Autonomia Erkidegoari, berriz, horiek lege bidez garatzea.
- b. Estatuari dagokio oinarritzko arauak ezartzea eta Lurralde Historikoari, berriz, horiek lege bidez garatu eta betearaztea.
- c. Estatuari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Eusko Jaurilaritzari, berriz, horiek arau bidez garatzea.
- d. Autonomia Erkidegoari dagokio oinarri orokorrak ezartzea eta Lurralde Historikoei, berriz, horiek arau bidez garatzea.

83. ALKATEA HAUTATZEN DUTE:

- a. Zinegotziek edo bizilagunek; hori guztia, hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera.
- b. Gehiengo osoz.
- c. Zinegotzi guztiek.
- d. Sufragio eskubide pasiboa duten bizilagun guztiek.

84. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ZUZENTZEKO ESKUBIDEARI DAGOKIONEZ.

- a. Interesdunak eskubidea du berari buruz dauden datuak zuzendu edo osa ditzaten eskatzeko.
- b. Interesdunak eskubidea du berari buruz dauden datuak ezereztu eta zuzendu ditzaten.
- c. Interesdunak eskubidea du berari buruzko datuak zuzendu daitezen soilik.
- d. 2019/679 (EB) Erregelamenduak ez du eskubide hori jasotzen.

85. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN 21. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN DA EBAZPEN ESPRESUA JAKINARAZTEKO EPEA, PROZEDURAK ARAUTZEN DUEN ARAUA BALDIN BADU BAINO EZ BADU EPEA FINKATZEN?:

- a. Dagokion prozedura arautzeko arauak ezarritako epea.
- b. 3 hilabeteko epea.
- c. 6 hilabeteko epea.
- d. Urtebeteko epea.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

86. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, NORI DAGOKIO ERABAKITZEA FROGALDI BAT HASIKO DELA, INTERESDUNEK ALEGATUTAKO EGITATEAK EGIAZTATZEKO EDO PROZEDURAREN IZAERAK HALA ESKATZEN BADU?:**
- Hierarkian goragoko mailakoari.
 - Prozedurako interesdunei.
 - Prozeduraren instrukzio-egileari.
 - Zuzenak dira a) eta b) erantzunak.
87. **EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 171. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA:**
- Euskal enplegatu publikoek zorrotz bete behar dute indarrean dauden legeetan jarritako bateraezintasun-araubidea.
 - Sektore publikoan edo pribatuan edozein jarduera bete dezaten, ez da berariazko ebaluaziorik egin beharko aurrez, eta ez da bateragarritasun-baimenik beharko.
 - Euskal enplegatu publikoek ezin izango dute inolaz ere jarduerarik bete sektore publikoan edo pribatuan.
 - Edonola ere, euskal enplegatu publikoek jarduera bete ahal izango dute sektore publikoan edo pribatuan.
88. **EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 167. ARTIKULUAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ENPLEGATU PUBLIKOAK:**
- Ez dute agindu zaizkien zerbitzuak ondo kudeatzeko erantzukizunik izango.
 - Agindu zaizkien zerbitzuak ondo kudeatzeko erantzukizuna izango dute.
 - Agindu ez zaizkien zerbitzuak ondo kudeatzeko erantzukizuna izango dute.
 - Aurreko guztiak faltsuak dira.
89. **LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DA LANAREN ONDORIOZ LANGILEAK KALTEREN BAT IZATEKO POSIBILITATEA:**
- Langileen prebisioa.
 - Prebentzioa.
 - Lan-arriskua.
 - Langileen babesa.
90. **DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA, ERAKUNDE HAUETAKO ZEINEK EZ DU IZAN BEHAR NAHITAEZ DATUEN BABESERAKO ORDEZKARIA?:**
- Elkargo profesionalek.
 - Segurtasun pribatuko enpresek.
 - Norberaren izenean jarduten duten osasun arloko profesionalek.
 - Unibertsitate publikoek.

TURISMO TEKNIKARIAREN DEIALDIA

91. **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEAREN TESTU BATEGINA ONARTZEN DUEN 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUAREN ARABERA, LAU KIDETIK GORAKO PERTSONA ANITZEKO ORGANOETAN ORDEZKARITZA OREKATUA DAGOELA ULERTUKO DA:**
- a. Sexu bakoitzeko kideek % 40ko ordezkaritza dutenean gutxienez.
 - b. Sexu bakoitzeko kideek % 50eko ordezkaritza dutenean gutxienez.
 - c. Sexu bakoitzeko kideek % 60ko ordezkaritza dutenean gutxienez.
 - d. Erantzunetako bat ere ez da zuzena.
92. **OBJETUTZAT EGITEKO PRESTAZIOAK ETA HORIEN ARTEAN JARDUERAREN BAT GAUZATZEA OBJEKTUTZAT DAUZKATEN KONTRATUAK:**
- a. Kontratu mistoak dira.
 - b. Obra-kontratuak dira.
 - c. Hornidura-kontratuak dira.
 - d. Zerbitzu-kontratuak dira
93. **EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOARI BURUZKO ABENDUAREN 1EKO 11/2022 LEGEAREN 161. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, EUSKAL ENPLEGATU PUBLIKOEK HONAKO ESKUBIDE INDIBIDUAL HAUEK DITUZTE:**
- a. Karrerako funtzionario-izaeraren mugikortasunerako eskubidea.
 - b. Karrera profesionalean aurrera egiteko eskubidea, baina ez barne-sustapenerakoa.
 - c. Etengabeko prestakuntza izateko eta ezagutza nahiz gaitasun profesionala etenik gabe eguneratzen jarraitzeko eskubidea, lehenetasunez, lan-ordutegiaren barruan.
 - d. Aurreko guztiak okerrak dira.
94. **TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN ARABERA, LANPOSTUEN ZERRENDAK EGITEKO JARRAITU BEHARREKO ARAUAK EZARTZEAREN ARDURA HONENA DA:**
- a. Administrazio publiko bakoitzarena.
 - b. Dagokion Autonomia Erkidegoarena.
 - c. Dagokion Lurralde Historikoko Foru Diputazioarena.
 - d. Estatuarena.
95. **TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN X. TITULUAK ARAUTZEN DITUEN BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN, TOKIKO GOBERNU BATZARRARI DAGOKIO ONARTZEA:**
- a. Lanpostuen zerrenda.
 - b. Enplegu publikorako eskaintza.
 - c. Lanpostuen aukeraketarako eta hornidurarako deialdien oinarriak.
 - d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

B

ERANTZUN ORRIA HOJA DE RESPUESTAS

Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

1. ABIZENA / 1º APELLIDO	
LEP 2022 (oposizio - LEHIAKETA)	
2. ABIZENA / 2º APELLIDO	
TURISTIKO TEKNIKARIA	
IZENA / NOMBRE	NAN / DNI
DATA / FECHA	KIDEGO EDO LANPOSTUA / CUERPO O PLAZA

NAN / DNI									
0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
4	4	4	4	4	4	4	4	4	4
5	5	5	5	5	5	5	5	5	5
6	6	6	6	6	6	6	6	6	6
7	7	7	7	7	7	7	7	7	7
8	8	8	8	8	8	8	8	8	8
9	9	9	9	9	9	9	9	9	9

SINADURA / FIRMA

Sinatu laukitik atera gabe / Firmar sin salir del cuadro

MARKATZE ARGIBIDEAK
INSTRUCCIONES DE MARCADO



honeja ez markatu
asi no marque

— — — — —

honeja markatu
marque así

Azterketa eredua / Modelo de examen

A ☒ B ☐

1 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	21 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	41 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	61 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	81 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐
2 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	22 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	42 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	62 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	82 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐
3 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	23 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	43 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	63 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	83 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐
4 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	24 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	44 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	64 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	84 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐
5 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	25 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	45 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	65 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	85 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐
6 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	26 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	46 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	66 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	86 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐
7 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	27 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	47 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	67 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	87 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐
8 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	28 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	48 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	68 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	88 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐
9 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	29 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	49 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	69 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	89 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐
10 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	30 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	50 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	70 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	90 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐
11 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	31 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	51 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	71 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	91 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐
12 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	32 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	52 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	72 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	92 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐
13 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	33 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	53 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	73 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	93 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐
14 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	34 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	54 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	74 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	94 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐
15 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	35 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	55 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	75 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	95 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐
16 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	36 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	56 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	76 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	96 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐
17 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	37 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	57 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	77 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	97 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐
18 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	38 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	58 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	78 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	98 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐
19 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	39 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	59 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	79 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐	99 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D EZEZT. ☐ ☐ ☐ ☐
20 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	40 ▶ ☐ A ☒ B ☐ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	60 ▶ ☐ A ☐ B ☒ C ☐ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	80 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐	100 ▶ ☐ A ☐ B ☐ C ☒ D ANULAR ☐ ☐ ☐ ☐